

AURKEZPENA

Gu Julen Dominguez, Iker Blanco eta Aratz Irisarri gara eta gure ideia alergia duen jendearentzat gomaz egindako belarritakoak saltzea da, alergia arazo horiek ekiditeko.

Produktu hau saltzearen arrazoi nagusia belarritako arruntei alergia dieten pertsonen beste aukera batzuk eskaintzea da, arazo horri irtenbide bat bilatuz. Baina ez da gure helburu bakarra, izan ere, ahalik eta jende gehienari saldu nahi dizkiogu gure apaingarriak. Ez da beharrezkoa alergia izatea belarritako arruntei, gustuko dituen edonorek erosi ditzazke inungo arazorik gabe.

Idea hau baino lehen beste hainbat genituen buruan, baino gure taldekide batek bere familiako kide baten adibidea kontatu zigun, hau da, berak zuen arazoa azaldu zigun taldekideei, eta irtenbide bat bilatu genion. Lehen momentutik egon ginen denok ados, beraz oso erraza izan da aurrera eramatea. Baina hau gure ideiarekin laburpen bat da bakarrik, beraz hobeto azalduko dugu dena atalez atal eta sakonduago hurrengo orrialdeetan.